

2014KO HAURRENDAKO ANTZERKI TESTUEN LEHIAKETAKO 1. SARIA

EU RIA REN *esperoan*

XABIER LOPEZ ASKASIBARENA





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

XABIER LOPEZ ASKASIBARENA

euriaren esperoan

Antzerki lana

PERTSONAIAK:

MALEN

MANUEL

MIELTXO

MERRIMAN

ANDREA(MIKAELA)

MIRTA

MICHAEL

MILÚ

AITA

Beste pertsonaia baten testuak bailiran har daitezke KONTALARIAREN hitzak, baita akotazio gisa ere; dena den, nahieran erabil daitezke taularatzeko garaian.

KONTALARIA.- Bazen behin munduko bazter urruti batean, herrialde ederra baino ederragoa. Mitxoletak loratzen ziren udaberriro, ezti gozoa egiten zuten erleek, jendeak alai txistu egiten zuen kalean eta, eta... eta bertan gaude orain.

Espazioaren iluntasunean musika harmoniatsua entzun daiteke: lo egiterako garaian amaren magalean kulunkatzen zaituzten horietakoa; abestean zoriontsu sentiarazten zaituzten horietakoa; hanketan kilimak eginez dantzara bultzatzen zaituzten horietakoa. Bazterrak girotzen dituen musika honen gainera, neskato baten ahots gozoa entzungo dugu, bera da, gure ipuineko protagonista.

MALENEN AHOTSA.- Aitak etxetik alde egin zuen egunean, herrian etengabe egin zuen euria, hogeita hamar egun eta hogeita hamar gauetan zehar.

KONTALARIA.- Bortitza bihurtuko zaigu musika bat-batean, eta horren artean ekaitz izugarri baten soinuak eta argiak ikus ditzakegu. Bai beldurra! Pixkanakapixkanaka desegiten joango da ekaitza.

MALEN.- Gero hodeiei sikatu omen zitzaien bihotza, eta urtebete egon ginen izugarrizko lehortea jasaten.

KONTALARIA.- Inguruak argi laranja tindatzen hasi dira; azken finean, erraz antzeman daitekeen bezala, udako arratsalde kiskalgarri horietako batean gaude. Hau beroa! Sumatzen duzue, ezta? Izerditan blai bukatzeko modukoa! Uf! Eguzkiaren distiren artean, egurrezko etxe zahar baten ataria ikus dezakegu; aspaldi altxatu zen etxeko paretetako margoa, eta inor ez da berriz margotzeaz arduratu. "Zertarako, ba?" Esango dizu herriko edonork. Hiruzpalau eskailera maila karrankari daude sarrerako ate zaharkituraino; kirrinki-karranka egiten

dute eskailerek zapaltzean, operako abeslari baten garrasi zorrotzek egiten duten bezala. Entzun, entzun. Hamar bat urteko neskatoa da eskailera indarrez zapaltzen duena, gora eta behera, gora eta behera saiatzen da dibertitzen, eskaileran bertan eseri baino lehen.

Neskatoak Malen du izena, bi eskuekin heltzen du burua asper-asper eginda baitago. Normalean alaia eta jatorra da, alde batetik bestera bueltaka eta saltoka dabil beti, baina gaur ez. Gaur ez daki zer egin. Eta jantzita daraman soineko hori? Behin dotorea izan zen; gaur egun, ordea, nahiko zikina eta urratua dago, ia trapuetarako ere ez du balio. Oinutsik joatea gustatzen zaio eta garai batean itxura hobea izan zuten bere ileko xingolek. Aspertuta dago gure Malentxo, bai. Bidea zeharkatzen duten autoak zenbatzera atera da, baina bere herritik ez da apenas kotxerik pasatzen eta ez da nahikoa izango bere gogogabetasunetik ihes egiteko. Hasperenak etengabeak dira. Malen koitadua. Palmondo baten hostoaz haizea ematen du aurpegian, ea ideiak freskatzen zaizkion. Beharko bai!

Demontre! Ondoko kalexka meharretik Manuel agertuko da, herriko eskalea eta neskatoaren lagun mina. Manuel tipo altua baino altuagoa da, garai batean herrian saskibaloia taldea egon izan balitz bera zatekeen kapitaina, baina sekula ez zaio gehiegi saskibaloia gustatu eta aspaldi inork ez duela kirolik egiten herrian. Uda izan arren, gabardina darama soinean; izan ere, eskaleak urte osoan zehar janzten du gabardina, eta herriko etxeoandrereren batek garbi diezaion baino ez du kentzen. Etxekoandreak beti tematzen dira gabardina hura garbitzeko, eskalari garbitzearen ideia gehiegi gustatzen ez zaion arren. Herriko jende guztiak maite du Manuel eta gustura eskainiko liokete beren etxea bizitzeko, baina Manuelek nahiago du kalean bizi, espiritu librea omen da-eta. Hori esaten du berak behintzat: "Espiritu librea naiz ni"

MANUEL.- Urtzen ari dun kale nagusiko brean.

MALEN.- Horrek harritzen al hau? Gu geu urtzen ez garen bitartean, gaitz erdi.
(Tontoarena egiten.) Ai, urtzen ari nauk, urtzen ari nauk!

MANUEL.- Ez dinat nire bizitza osoan horrelako lehorterik ezagutu.

MALEN.- (Utziko dio tontoarena egiteari bestearen barreak lortu ez dituenean.)
Ai, Manuel! Urtero gauza bera esaten duk, urtero gertatzen duk hire bizitzako
lehorterik kezkarriena. Nola da posible hori?

MANUEL.- Benetan? Hori esaten al dut? Agian memoria kaxkarreko tipoa
naizelako, baina ezin didan ukatu oraingo hontan egoera kezkarria dela.

MALEN.- Ez zaik arrazoirik falta. Urtebete zaramaagu ur tanta bat bera ere ikusi
gabe... ur bila gerturatu gintuan atzo putzura... eta erdiraino soilik bete ahal izan
genian pertza... Entzutekoak zituan Mikaelaren hasperenak eta aieneak.

MANUEL.- Herriko zaharrek diotenez, madarikazioren batek hartu din herria eta
hori konpondu arte... ez din berriz euririk egingo eskualde osoan.

MALEN.- Baina, zer diok Manuel? Nork kontatu dik horrelako lelokeria?

MANUEL.- Ez dun lelokeria. Ahoz aho zabilen.

MALEN.- Jendea aspertzen duk... neu bezala. Uda amaigabe hontan zerbait
asmatu behar duk orduak azkarrago igarotzeko.

MANUEL.- Zaharren esanetan gezurrik ez.

MALEN.- Hala uste baduk...

MANUEL.- Gizonak joan zirenetik denbora gelditu dun herrian.

MALEN.- Egia.

KONTALARIA: Hasperen egiten dute biek. Bitan hasperen egiten dute biek.
Hirutan hasperen egiten dute biek.

MALEN.- (Lotsati.) Manuel, galdera bat...

MANUEL.- Esan...

MALEN.- Zergatik ez hintzen beste gizonekin joan?

MANUEL.- Espiritu librea naun.

MALEN.- A... horregatik.

MANUEL.- Horregatik? Ze esan nahi du "horregatik"? Haiekin joatea nahiko huke? Hori nahiko huke? Koldarra naizela uste al dun?

MALEN.- Ez, ez diat hori esan, baina arraroa duk. Herriko gizon guztiek alde egin zitean... haurrek, zaharrek eta heuk izan ezik.

MANUEL.- Egia esango dinat... ez ninditenan borrokarako onartu.

MALEN.- Ez duk izango. Nola da posible hori?

MANUEL.- Gizon indartsuak behar ditun izurriarekin bukatzeko... aspaldi utzi nionan indartsu izateari. Arnas egiteko arazoak ditinat biriketan, eta berehala geratzen naun airerik gabe. Borrokara ez joateak tristatzen al hau?

MALEN.- (Alai.) Ez, kontrakoa, pozten nauk; horrela badiat norekin hitz egin eta jolastu.

KONTALARIA: Bat-batean zarata entzuten da etxe barruan; antzeman daiteke norbait haserre mugitzen ari dela. Bi lagunek adi begiratzen diote etxeari, ezaguna baino ezagunagoa baitute zarata hori.

MANUEL.- Oi, oi, oi.

MALEN.- Ai, ai, ai.

BIEK.- Ui, ui, ui.

KONTALARIA: Norbaiten arnasestuak entzun ditzakegu etxean. Mikaela da, Malenen haurtzaina, neskaren bila dabil eta bidean dituen tramankulu guztiekin egiten du estropezu. Hain da baldarra.

MIKAELAREN AHOTSA.- Ai, ene! Ai, ene!

MALEN.- Hobe huke alde egitea, Manuel.

MIKAELAREN AHOTSA.- Madeleine! Ai, ene! Ai, ene! Non demontre sartu da neskato hau? Madeleine!

MANUEL.- Zergatik, ba?

MALEN.- Badakik nolakoa den, ez dik batere atsegin kaleko jendearekin ematea orduak; zuen eragina ez omen duk ona niretzat.

MANUEL.- Ze? Geure eragina?

MALEN.- Horixe bera. Tira, tira, ez diagu berriketan ibiltzeko astirik.

MANUEL.- Baina ez dinat inora joateko paradarik, ihesean harrapatuko nain.

MALEN.- Orduan, ezkuta hadi, azkar.

MANUEL.-

Non baina?

MALEN.- Teilatuaren gainean. Ez, hor ez. Eskailerapean. Hor ezta ere. Hor lorategiko zuhaixkaren atzean. Hor bai.

MANUEL.- Iharra baino iharrago zagon.

MIKAELAREN AHOTSA.- Ai, ene! Madeleine! Etor zaitetz hona lehenbailehen!

MALEN.- Ez dik inporta, oso despitatua duk eta ez hau ikusiko bertan.

MANUEL.- Ongi dun.

KONTALARIA.- Manuelek zuhaixkaren atzean ezkutatzeko imintzioa egitearekin batera, Malentxoren aurpegi zikina ikusiko du. Begi-bistakoa da, bai! Manuel eskalea izan arren, ezin du onartu Malenen kuxidadea.

MANUEL.- Etor hadi hona, Merriman andreak horrela ikusten bahau, zuzenean sartu beharko haiz bainuontzian.

KONTALARIA.- Gabardinatik aterako du mukizapia, eta listu pixka batekin hasiko zaio aurpegia garbitzen, xingolak tentuz atontzen dizkion heinean.

MANUEL.- Ez nain harritzen hirekin haserretzea. Neskato batek bere itxura zaindu behar din, soineko honek urratuak ditin leku guztietatik.

MALEN.- Ai, utz nazak bakean. Mikaela Merriman andreak bezala hitz egiten duk. Nahi dudan moduan jantziko diat. Gorroto ditiat soinekoak, eta hau janzteko arrazoi bakarra...

MANUEL.- Nahi dunana, heuk jantzi nahi dunana... baina ez dinat nahi berriz errieta egitea.

MIKAELAREN AHOTSA.- Madeleine! Ma-de-leine!

MALEN.- Bai haserretuko dela nirekin ikusten bahau. Ezkuta hadi berehala zuhaixkaren atzean.

MANUEL.- Ados.

KONTALARIA.- Ezkutatzearekin batera irekiko da etxeko atea, bertan agertuko da Mikaela Merriman andrea bere soineko garbi-garbia eta beltz-beltza daramala. Motots estuak eta aurpegi serioak beldurra sortuko liokete edonori, emakumea nahiko baldarra izango ez balitz, behintzat; izan ere, dibertigarria suertatzen da bere baldarkerian, eta esfortzuak egin behar ditu Malenek barre ez egiteko. Egongelako gauza guztiekin estropezu egiten duenez, eskuetan lanpara bat darama, buruan kulero batzuk eta oinean itsatsirik uneoro kentzen saiatzen den azpila: itxura dibertigarria emango dio horrek emakumeari.

MIKAELA.- Madeleine! (Kuleroekin ez duela ongi ikusten.) Ai, ene! Ai, ene! Jakin daiteke non sartu zaren?

MALEN.- (Barreari ezin eutsirik.) Hementxe, Merriman andrea.

KONTALARIA: Merriman andrea bere egoeraz konturatu da, kuleroak aurpegitik kentzen ditu baina hemendik aurrera eskuan itsatsirik geratuko zaizkio lanpararekin batera, zein barregarria! Azpila eta kuleroak kentzen saiatuko da etengabe eta arrazoi horregatik nahiko komikoak dira bere sermoi guztiak.

MIKAELA.-Trasteak leku guztietatik uzten dituzu eta noski, gero neuk jaso behar dena. Ez naiz zure neskamea. Entzun duzu?

MALEN.- A, uste nuen estropezu egiten zenuelako zeneramatzala tramankulu horiek gainean.

MIKAELA.- Estropezu neuk? Nola ausartzen zara hori esatera? Jakina ezetz. Jaso behar ditut sakabanatuak uzten dituzun gauzak eta horregatik... e... u... e... entzun duzu... ez naiz zure neskamea. Ai, ene! Ume demonioa!

MALEN.- (Azpila seinalatuz.) Eta oinarekin ere jasotzen al dituzu gauzak?

MIKAELA.- (Disimulatzen saiatuko da, azpilaz libratu nahian, baina ez du lortuko.)
Jakina! Gorputz atal guztiekin jaso behar ditut gauzak dena txukun uzteko. Hau kalamidadea!

KONTALARIA.- Neskari bere abildadea erakutsi nahi dio eta, bere asmoa ez den arren, gorputzeko atal ezberdinak erabiliz keinu komikoak egingo ditu inguruan dauden gauzak jasotzeko. Ia zirkuko artista dirudi.

MIKAELA.- Begira, begira... Begira zein abildadea dudan.

KONTALARIA.- Bat-batean Maleni begiratzuz, ai, ez! Lurrera eroriko zaizkio jaso dituen gauza guztiak, pin, pan, pun, azkenean kargatzen zuen guztiaz libratuz. Baita azpilaz ere.

MIKAELA.- Baina, baina, baina, zer itxura da hori?

MALEN.- Berriz hasiko al gara?

MIKAELA.- Jakina.

KONTALARIA.- Diskurtsoa ematen hasiko da Merriman andrea, beti berbera denez, Malenek buruz daki eta, ai ene! andrearekin batera esango du hau antzeratuz.

MIKAELA.- Badakizu ongi hezitako neskatoek beti esaten zaien guztia bete behar dutela, ezingo dute ezer esan baimena eman arte eta, iritziak izatekotan, beretzat gordeko dituzte. Garrantzitsua da oso, beti soineko garbiak eta politik eramatea... (Malen imitatzen ari dela ikusita.) Nahikoa da! Imitatu nahian zabilta?

MALEN.- Nor, neu?

MIKAELA.- Jakina.

MALEN.- Ziur al zaude neu izan naizela, Merriman andrea?

MIKAELA.- Ziur? Ba... beno... ez dakit...

MALEN.- Orduan, ziur ez bazaude...

MIKAELA.- Ez ni endredatu gero. Ai, ene! Zu izan ez bazara, zuhaixka ihartuaren atzean ezkutatuta dagoen zure lagun zarpaila izan da eta errespetu falta izugarria deritzot horri; azken finean, ez dugu apenas elkar ezagutzen eta...

MANUEL.- (Asaldatuta bere ezkutalekutik.) E, ni ez naizela izan! (Bere golkorako ezkutalekua agerian utzi duelako edo.) Kakazaharra, harrapatu egin naik.

MALEN.- (Arduratuta Manuelek jaso dezakeen errietarengatik.) Ez, Manuel ez da izan. Barkatu, neu izan naiz, nirea da errua. Baina badakizu soinekoak gorroto ditudala, are gehiago udan, eta arrazoi bakar batengatik janzten dut soineko hau...

MIKAELA.- Zure apetak bost axola neuri, baina nire kargu utzi zaitu amak, eta nirekin zauden bitartean, behintzat, txukun joango zara.

MALEN.- Gaixorik jarraitzen al du amak?

MIKAELA.- Badakizu ez dela apenas ohetik jaiki zuen aita joan zenetik. (Biak isilduko dira. Mikaela gaiaz aldatzen saiatuko da.) Esaiozu zure bi metroko lagunari atera dadila zuhaixka horretatik, ez baitizkio hankak ere estaltzen.

MALEN.- Atera, Manuel, mesedez!

KONTALARIA.- Manuel, lotsati, "basotik" aterako da, adaxkak gabardinan endredatzen zaizkion arren, ai, ai, ai, azkenean lortuko du Malen eta andrearen ondora gerturatzea.

MANUEL.- (Burumakur eta eskua eskainiz.) Egunon, Merriman andrea.

MIKAELA.- Zer egunon eta zer eguntzar... Baina zer zikina daramazun gabardina. Manuel zara, ezta? Zein izan zen garbitu zenuen azken aldia?

MALEN.- Utziozu bakean, oso garbia da Manuel.

MIKAELA.- Zurekin alderatuta, jakina. Manuel, erantzun nire galderari, noiz izan zen gabardina hori garbitu zenuen azken aldia?

MANUEL.- (Burumakur oraindik.) Ba, ez dut ongi gogoratzen. Uste dut Mclean andreak garbitu zidala aurreko hilean.

MIKAELA.- Mclean andreak? Puf! Horrek ez du sekula Marsellako xaboa erabiltzen. Ulertu behar duzue izurritea gertu dagoela eta horri aurre egiteko garrantzitsua dela garbitasuna. Dena garbi-garbi edukitzea.

MALEN.- (Mikaela eta Manueli galdetuko die.) Egunero ari zarete izurriteari buruz hizketan, baina... zer da? Nolakoa da? Zergatik eraman behar dugu den-dena garbia?

MANUEL.- Ez ni begiratu. Espiritu librea naiz, bai, baina gutxi dakit izurriteei buruz.

MIKAELA.- Egia esan... ez dakit seguru... baina izurritea dena delakoa izanda ere, hobe dugu garbi egotea, gaixotasunik ez harrapatzeko. Badaezpada ere. (Manueli gabardina kenarazten saiatzen da.) Horregatik, Manuel, ekarri, ekarri hona...

MANUEL.- (Erresistentzia apur bat jarriz.) Ezetz andrea, ez dela behar...

MIKAELA.- Nola ez dela behar?

KONTALARIA.- Tira-bira gertatuko da gabardinaren inguruan, ene, zirudiena baino indar handiagoa dauka Merriman andreak. Malen bere lagunaren alde

egiten saiatuko da sokatira inprobisatu horretan, ai, ez! azkenean alde batetik bestera urratu egin da gabardina.

MALEN.- Begira ze egin duzun!

MIKAELA.- Ziur Mclean andreak lixiba erabili zuela eta gabardina horrela geratu zaizu... Berria erosi beharko zenuke.

MALEN.- (Merriman andrea seinalatuz.) Baina, zure errua izan da.

MIKAELA.- Ongi hezitako neskato batek sekula ez du seinalatzen, garbitzera joan beharko zenuke.

MALEN.- Ez dut ongi hezitako emakumea izan nahi.

MANUEL.- (Miretsita Merriman andrearen indarra dela eta.) Arrazoia du.

MALEN.- Baina Manuel, zer diok? Hire gabardina urratu dik eta.

MANUEL.- (Liluratuta.) Nahigabe izan da. Oso emakume ederra eta azkarra da Merriman andrea. Arretaz entzun beharko zenuke berak esandako guztia, berak badaki zer den ona zuretzat.

MIKAELA.- (Manuelen esaldiekin harrিতuta.) Benetan pentsatzen al duzu hori? (Manuelek baietz esaten dio buruaz. Bat-batean irribarre tontoaz.) Ai, ene! Ekarri gabardina, mesedez. (Gabardinaren bi zatiak hartuz. Segundo batez usaindu eta gero.) Ai, ene! Ez dago uste nuen bezain zikina, usain freskoa du. Neuk josiko dizut eta berria izango balitz legez geratuko zaizu.

MALEN.- Baina, zer diozue? Tontotuak al zaudete? Manuel, haserretu hadi, gabardina bi zatitan utzi dik.

MANUEL.- (Irribarre tontoaz Merriman andreaki egiten dio hitz eta ez Maleni.)
Nola haserretuko naiz, ba? Nire gabardina berria izango balitz bezala utziko duela
esan du. Gainera gabardina bat besterik ez da, gabardina asko daude munduan...

MALEN.- Gabardina asko munduan? Zer? Merriman andrea ez josi, gabardina
asko daudela munduan. Zergatik josiko diozu gabardina? Berak jos dezala ez
bazaio inporta, ez du beti esaten: "Ni espiritu libre naiz". Ba, ikas dezatela
espiritu libreak garbitzen eta josten.

MIKAELA.- (Irribarre tontoaz.) Malentxo, maitea, ez zaitez lotsagabea izan.
Manuel jauna...

MALEN.- Manuel jauna?

MIKAELA.- Bai, Manuel jauna ezagutu dudak gizonik galai eta lerdinena da.
Gabardina konponduko diot, ez dago eztabaidatzerik. Ados, Manuel jauna?

MANUEL.- Manueltxo, mesedez.

MIKAELA.- (Lotsati.) Ados, Manueltxo?

MANUEL.- Ez da beharrezkoa. Baina, zuk nahi duzuna, Merriman andrea.

MIKAELA.- Ez nazazu Merriman andrea dei. Mikaela deitu, mesedez.

MANUEL.- Zuk nahi duzuna... Mikaela.

MALEN.- (Bere golkorako.) Manueltxo? Mikaela? Tontotuak zauden heldu hauek.

MIKAELA.- (Eskuarekin agur eginez.) Agur!

MANUEL.- (Eskuarekin agur eginez.) Agur!

KONTALARIA.- Urrutitik eskuekin agur egingo dute jolasean egongo balira bezala, a ze pare! Baina sartu aurretik, nola da posible? Berriro? Merriman andreak azpilarekin berriz estropezu egin du.

MIKAELA.- (Amets gaizto batetik esnatu izan balitz bezala.) Ai, ene! Zertarako etorri nintzen ni hona? A! Madeleine, ez ahaztu eskolako lanak egin behar dituzula!

MALEN.- Udan gaude.

MIKAELA.- Hori al da arrazoia ez egiteko? Urtebete daramagu udan eta ezin zara urtebete eskolako lanak egin gabe egon.

MALEN.- Hori ere egia da.

MIKAELA.- Badakizu! Eta aldatu arropa hori, mesedez! (Berriz irribarre tontoaz.) Agur, Manueltxo! (Agur esango dio eskuaz etxera sartu arte, hori bai, azpila hankan daramala.)

MANUEL.- Agur, bai! Ze emakumea...

MALEN.- (Manueli hitz egiteko ostikoa joko dio.) E, esnatu! Esnatu!

MANUEL.- Ai, Malen! Hemen al hintzen? Ze gertatzen zain?

MALEN.- Arazo bat diagu, Manuel.

MANUEL.- Arazoa? Zein arazo? Gabardinarengatik esaten badun...

MALEN.- Ez, ez duk hori. Arazo larriago bat. Urtebete zaramak euririk egin gabe.

MANUEL.- Bai, lehen ere esan dun.

MALEN.- Bai, baina Mikaelak esan duen bezala, ezin gaituk uda etengabe batean bizi. Horregatik zerbait egin beharko genikek.

MANUEL.- Zerbait?

MALEN.- Bai, zerbait.

MANUEL.- Baina, ze zerbait.

MALEN.- Ez zakiat, utzidak pentsatzen.

MANUEL.- A, ongi dun, biok pentsatuko dinagu.

KONTALARIA.- Biek zerbait pentsatzeari ekingo diote segundo batzuetan, buruak zarata egingo die pentsatzean. Entzuten duzue? Ratata, kruitz-kruitz, ratata.

MANUEL.- Zerbait?

MALEN.- Ez, oraindik ez.

KONTALARIA.- Biek berriro zerbait pentsatzeari ekingo diote, ratata, kruitz-kruitz, ratata, oraingoan ke moduko bat aterako zaie burutik.

MANUEL.- Zerbait?

MALEN.- Ez, ba, oraindik ez.

KONTALARIA.- Berriro pentsatzeari ekingo diote eta buruko ilea tente jarriko zaie: ratata, kruitz-kruitz, ratata. Azkenean Maleni zerbait bururatuko zaio, argi bat piztuko zaio buruan.

MALEN.- (Pozik.) Bai!

MANUEL.- (Pozik ere Malen pozik ikusita.) Bai! Zerbait bururatu al zain?

MALEN.- (Pozik) Bai!

MANUEL.- (Pozik ere bai.) Bai! Eta ze bururatu zain?

MALEN.- (Pozik.) Ideia bikaina!

MANUEL.- (Pozik.) Ideia bikaina!

MALEN.- Ideia paregabea!

MANUEL.- (Gero eta alaiago.) Ideia paregabea! Baina, zein da ideia? Esan, esan...

MALEN.- Euriaren bila joango gaituk.

KONTALARIA.- Isilik geratu dira biak.

MANUEL.- (Serio.) Euriaren bila joango garela?

MALEN.- Bai, Manuel, berehala gainera.

MANUEL.- Hori al da hire ideia bikaina? Hire ideia paregabea?

MALEN.- Bai! Bai!

MANUEL.- Ai, Malen...

MALEN.- Zer duk Manuel?

MANUEL.- Hori ezinezkoa dun. Inor ezin dun euriaren bila joan.

MALEN.- Ezinezkoa, hori ez duk egia. Ez zagok ezer ezinezkoa. (Isilunea.)

MALEN.- (Manuelen gaitzespen aurpegia ikusita.) Manuel, ez duk ezinezkoa. Euria urtebete zaramak agertu gabe, nonbaitera joango zuan... Ez da hala? Agian galdu egin duk eta ez zakik honaino etortzen.

MANUEL.- (Pentsamenduak buruari bueltaka dabilzkio.) Baliteken.

MALEN.- Gu geu izango gaituk bere bila joango garenok. Ez zaik zoragarria iruditzen? Abentura zoragarria izango duk guretzat.

MANUEL.- Ez zakinat nik ba... eta euria topatu baino lehen...

MALEN.- Zer?

MANUEL.- Eta euria topatu baino lehen... izurriteak gu aurkitzen bagaitu?

MALEN.- (Serio.) Posible duk, hor arriskua zagok. Baina gu ausartak gaituk, ezta?

MANUEL.- Ez zakinat...

MALEN.- Baietz ba! Geure abentura bizitzera goaz!

BIAK.- Geure abentura!

MIELTXO.- Kaizo!

KONTALARIA.- Zortzi bat urteko mutikoa agertu da kaleko bidexkatik. Nahiko potoloa da, belaunak zauriz beteak ditu eta poltsikoetan ia beti bokataren bat eraman ohi du. Uf! Hitz egiten duenean akats bat du ahoskatzeko eta batzuetan ez zaio esaten duena erabat ulertzen, konturatuko zarete, bai.

MIELTXO.- (Poltsikotik ateratako bokata jaten hasten dela.) Kaizo! Zertan zabilzate?

MANUEL.- Hementxe, geure abentura... (Malenen ukondokoa jasotzen du.) Ai! Ze?

MALEN.- (Disimulatzeko keinuak eginez.) Hementxe, aspertzen. Badakik, uda luze hontan...

MANUEL.- Baina, Malen, gu...

KONTALARIA.- Malenek besotik helduko du Manuel, eta bazter batera eramango du. Mieltxo ez da gehiegi arduratuko gertatzen denarekin eta bere bokata jaten jarraituko du. Zanpa-zanpa.

MALEN.- Zoratuta al hago?

MANUEL.- Zergatik? Euriaren bila joan behar dugula kontatu behar nionan, besterik ez.

MALEN.- Horregatik, ezin zioagu inori kontatu. (Hatza ahora hurbilduko du isiltasuna eskatuz.) Gure sekretua duk...

MANUEL.- A! Gure sekretua... Baina, laguna dinagu Mieltxo, nora jo behar dugun kontatu beharko genioken.

MALEN.- Ez, bestela gurekin joan nahiko dik eta onartezina duk hori.

MANUEL.- A! Onartezina... Baina hobe hiru bi baino, laguntza beharko dinagu euria topatzeko, auskalo ze arrisku izango ditugun bidean.

MALEN.- Eta hik uste duk Mieltxo laguntza izango dela?

KONTALARIA.- Biek burua jiratuko dute Mieltxo begiratzeko. Miel ez da ezertaz ohartzen eta une horretan buf, hau nazka, une horretan hortzetatik txorizo zati bat kentzen ahalegintzen arituko da. Begira ikusten dituenean eskuaz agurtuko ditu. Biek ere agurtuko dute.

MALEN.- Ikusten?

MANUEL.- Agian, ez dun laguntzarik egokiena... baina... gure laguna dun eta janari hornidurak eraman zitzaken.

MALEN.- Hori ere egia duk. (Mieltxok bi lagunak hausnarketak etengo ditu.)

MIELTXO.- Ordua, ze, zuekin joando naiz, bai ala ez?

BIEK.- Gurekin? Nora gurekin?

MIELTXO.- Eudiaden bila, noda izango da, ba?

BIEK.- Dena hekien?

MIELTXO.- Bai, nozki. Azpaldi dadamat zuen elkadizketa enzuten. Zuekin joando naiz, bai ala ez?

MALEN.- (Manuelek ukondoarekin eman diola.) Ados. Baina esandako guztia egin behar duk.

MIELTXO.- Adoz.

MALEN.- Eta arriskuekin ez haiz negarrez hasiko, ezta?

MIELTXO.- Ez, Maden, nik ez dinat zekula negadik egiten. Beno, bazuetan bakadik... Eda janadi guztia edaman zezakenat.

MALEN.- Hortan ez genian inolako zalantzarik. (Manuelen beste ukondoko bat jaso duela.) Ongi da... Prest al zaudete?

MIELTXO eta MANUEL.- Bai!

MALEN.- Euriaren bila joango gara!

MANUEL.- Malen, ez dun hire ama agurtuko aurretik?

MALEN.- Ez, ohean egongo duk. Gaixorik zagok, ez diat larritu nahi. (Isiltasuna)

MALEN.- (Berriz denak animatu nahian.) Euriaren bila joango gaituk, ados?

MIELTXO eta MANUEL.- Bai, euriaren bila!

HIRUEK.- Euriaren bila!

KONTALARIA: Musika misteriotsua entzungo da, oilo ipurdia jartzeko moduko musika. Erabat kiskalitako baso batean gaude, soilik zuhaitzen hezurdurak geratzen dira eta errautsez betea dago lurzorua. Errautsez egindako basamortu bat dirudi. Hara!, han eta hemen arroka handi batzuk topa ditzakegu.

Malen eta Manuel agertuko dira, motxila banarekin. Manuelek nekatu aurpegia du, ai, horrenbeste ordu oinez eta oinez, arnas egitea ere kostatzen zaio; Maleni, ordea, aurrera egiteko gogo tinkoa nabari zaio; izan ere, zerbait buruan sartzen zaionean...

MANUEL.- (Zailtasunez arnas eginez) Orduak zaramanagu errautsa ikusten, besterik ez.

MALEN.- Eutsi, Manuel. Bide egokian goazak eta.

MANUEL.- Hik esaten badun.

MALEN.- Bai, horrela duk. (Atzera begiratu.) Hara! Jakin daiteke non sartu den Mieltxo?

MANUEL.- Ez zakinat, duela gutxira arte gure atzetik zetorrenan.

BIAK.- Miel! Miel!

KONTALARIA.- Zer dira zarata horiek? A, jakina, Mielen arnasestuak entzun ditzakegu. Begira, hor dago, azkenean bidetik dator izerdi patsetan eta ia lurretik arrastaka.

MIELTXO.- Banoa, banoa... Motelzeago joan ahal zineden, ez dago zuen abiadura jarraizerik.

BESTEAK.- E?

MIELTXO.- Polikiago joadeko, konzo.

MALEN.- Zer diok? Ez goazak azkar, oso geldoa haiz. Kilo batzuk soberan dituk, hori duk asuntoa.

MIELTXO.- (Minduta.) Hori izango dun azundoa, Malen. Baina ni nekadurik nagon eda (Esfortzu handia eginez bazter batean dagoen harri koxkor baten gainean esertzen da.) ez naun hemendik mugiduko dezkanzadu arde.

MALEN.- Hik jakingo duk ze egiten duan. Manuelek eta biok aurrera jarraituko diagu. Ezta, Manuel?

MANUEL.- Malen, agian atsedenalditxo bat...

MALEN.- Manuel, hik ere? (Bakarrik abiatzeko helburuaz.) Bakarrik joango nauk.

MANUEL.- Malen, ez izan kaskagogor eta entzun. Orduak zaramanagu ibiltzen eta ibiltzen. Ongi zagon pixka bat deskantsatzea eta zeozer jatea. Ez dun uste? (Malen pentsakor.) Gero indarberrituak bideari ekingo zionagu.

MALEN.- Ongi, baina denbora laburra izango duk.

MANUEL.- Ongi!

MIELTXO.- (Oraindik minduta dagoela, marmarti Maleni.) Gude kapidaina gedaduko dun azkenean.

MALEN.- E?

MIELTXO.- Azkenean geraduko haizela, konzo.

MANUEL.- (Mieltxoren ondoan eseriz.) Malen, uste dinat barkamena eskatu behar dionala norbaiti.

MALEN.- (Oso tematia dela.) Barkamena? Nori? Zergatik?

MANUEL.- Malen, mesedez, ez hadi egoskorra izan.

KONTALARIA.- Manuel harritik jaikiko da, eta Maleni keinuka esango dio Mieltxoren ondoan esertzeko. Purrustaka onartzen du esertzea; azkeneko honek, beste alde batera begiratuko du harrotuta eta minduta.

MALEN.- Mieltxo, ez nian oso motela haizela esan nahi.

MIELTXO.- Eda?

MALEN.- Eta ez dituk kilo batzuk soberan, bakoitzak bere gorputza dik. Gorputz guztiak ezberdinak dituk baina guztiak ederrak. Hi potxoloa haiz eta ni, espageti bat bezalakoa. Eta ze, ze inporta du horrek?

MIELTXO.- Benetan esaten dun hori ala barkatzeko esaten dun?

MALEN.- (Segundo batez zalantzati.) E... ai, Mieltxo, ez izan tontoa. Zera esan nahi diat... Haizen bezala gustatzen hatzait, akatsekin eta gauza onekin. Horregatik gaituk lagunak.

MIELTXO.- Eda?

MALEN.- Baina ze gehiago nahi duk esatea?

MIELTXO.- Ezagudu dunan mutikodik jatodena eta ongien danzazen dena naizela.

MALEN.- Zer? Hori ez diat esango...

MANUEL.- Malen...

MALEN.- (Hasperen eginez.) Mieltxo, ezagutu dudan mutiko jatorrena eta ongien dantzatzen dena haiz. Konforme?

MIELTXO.- (Malen besarkatuz.) Bai! Hi ezagudu dudan nezka jatodena eta ongien abezten duena haiz.

MALEN.- (Benetan irribarre egiten duela bere lagunarekin.) Ai, Mieltxo! Zein txotxolo haizen... zera, esan nahi diat, zein dibertigarria haizen.

MANUEL.- (Beste harri koxkor baten gainean eseriz.) Dena bere onera etorri denez, askarixoren bat egitea komeni zaigu.

MALEN.- Bai, Manuel, orain arte ez nauk konturatu... baina lehoi oso bat jango nitek. Mieltxo, atera ekarri dugun janaria. (Mieltxok zerura begiratzen du txistuka.) Miel? Ez al duk entzun? Atera bokatak eta bestea. (Kasurik egiten ez diola, jaikiko da) Mieltxo, ez huen guztia jango, ezta?

MIELTXO.- Jo, gose nindunan...

MALEN.- (Haserre.) Emango diat ba... (Baina Manuelek heltzen du ezer egin aurretik eta lasaitzen saiatuko da.)

MANUEL.- Miel, Mieltxo... gordeko higun zerbait, ezta?

MIELTXO.- (Irribarrez.) Bai, nozki.

MANUEL.- Ikusten, Malen? Ez dun zertan horren azkar urduritu behar. Ea, Mieltxo, atera gordeta duana.

MIELTXO.- (Bere motxilatik gauzak ateratzen hasiko da eta lurrean uzten. Bere buruarekin bezala.) Gozoki bazuk, mendazkoak... inzaudak... ah, ez, inzaudak lehenengo bideguruzean bukatu nitian... patata polza bat... bi azenario... non zartu ditiat azenarioak?... ah, eta zagar bat, hara ez nekian zagar bat genuenik (Mielek hozkada emango dio.) Apud bat berdea, baina gozoa zagok, (besteei) nahi?

MANUEL.- (Ukabilkada aurpegian eman nahi diola.) Emango diat ba...

MALEN.- (Manuel lasaitzen saiatuko da.) Lasai, bestela asma atakea izango duk.
(Mieltxori.) Behintzat ura utziko higun.

MIELTXO.- Uda? Ze uda?

MALEN.- Kantinploran sartu dugun likido garden hori.

MIELTXO.- A, hodi!

MANUEL.- Orduan?

MIELTXO.- Bidean topadu geduen hezudetan zegoen zakur argal hodi eman nion.
Egadi zela zirudien.

BESTE BIAK.- (Lepotik heltzeko asmoz.) Zer?

MIELTXO.- E! Zanza zela! Jenio bizia duzue! Uda hazi gabe dagoela!

KONTALARIA.- Beno, jateko garaia da. Mielek kantinplora aterako du eta geratzen diren jakiak jatera eseriko dira denak.

MANUEL.- (Maleni) Gozoa zagon azenarioa...

MALEN.- Baina ur gutxi geratzen zaiguk, Manuel, ez badiagu berehala putzu edo ibairen bat topatzen... (Bere ingurura begiratuko du esperantza galdua.) ...buelta eman beharko diagu.

MIELTXO.- Eudia aurkitu gabe?

MANUEL.- Malen, baina ez badinagu euria topatzen, laster herrian lehorte jasanezina izango dun.

MALEN.- Bai, hala duk. Baina inguru hauetan...

MIELTXO.- (Mieltxo oso azkar hitz egiten hasiko da, sagar zatiak ahotik botako ditu eta ez zaio apenas ulertuko.) Hodi bai dela ezidezkoa, gorpuzak hidu egun baino gehiago idaun dezake ezed edan gabe eta gaineda odaindik...

BESTE BIAK.- (Erdi barrezka.) Zer?

MIELTXO.- Aueda jadaitu behad dugula, konzo.

KONTALARIA.- Kar. Kar, kar! Manuel eta Malen barrezka hasiko dira, eta Malenek, oi, oi, oi... Mieli musua emango dio masailean. Mieltxo gorri-gorri jarri da eta denok barrezka hasiko dira. Kar, kar, kar! Bat-batean... adi, adi! zarata leuna baina arraroa entzungo da, zer edo zer arrastaka etorriko balitz legez. Hau beldurra!

MALEN.- (Isilduz, belarria zorroztu nahian.) Entzun al duzue hori?

MANUEL.- (Barrezka.) Bai, Mieltxoren tripak ditun, ogro baten orroak ziruditen.

MIELTXO.- E!

MALEN.- Ez, ixo! (Hirurak adi geratuko dira zer edo zer entzuteko asmoz. Zerbait arrastaka datorrela entzun daiteke.) Entzun al duzue?

MANUEL.- (Maleni.) Zerbait arrastaka zatorren, ezta?

MIELTXO.- (Larrituta.) Ai, animalia bazatiren bat izango al da?

MALEN.- (Mieltxo lasaitu nahian.) Ez zakiagu. Azkar batean dena sartuko diagu motxiletan eta ezkutatuko gaituk. Begira arroka handi horren atzean...

KONTALARIA.- Azkar, azkar, azkar... berehala dena jasotzen hasiko dira eta bukatutakoan arrokaren atzean ezkutatuko dira; baina, noizean behin, haien buruak ikus ditzakegu gertatzen denari so. Ezkutatu eta berehala ikusiko dute fardel beltz handi bat arrastaka. Baina, zer da hori? Bere kabuz mugitzen al dira fardelak?

MIELTXO.- (Dardaraz.) Ezaten nizuena, animalia bazatia da.

MALEN.- Bai, zera! Ixo, bestela entzun egingo gaitu!

KONTALARIA.- Fardel beltza... ai, geldirik dago fardela, zerbait entzun izan balu bezala; ingurura begiratuko du baina ez du ezer ikusiko. Aurrera jarraituko du orduan eta askaria hartzen ari ziren lekuraino iritsiko da. Zerbait ikusi du lurrean eta hartuko du. Bitxia benetan...

MANUEL.- (Bere buruarekin.) Zerbait ikusi duela uste diat. Ze, ordea? Nire motxilako linterna eta beste gauzak jaso ditiat. (Besteei.) Dena jaso duzue, ezta?

MALEN.- Bai, nire motxilako mapa, ipar-orratza... Mieltxo?

MIELTXO.- Bai...

MANUEL.- Ziur?

MIELTXO.- Bai... beno igual...

MALEN.- Iguar zer?

MIELTXO.- Iguar eta bakadik igual... gozokiak...

MALEN.- (Haserre ez, baina bai arduratuta.) Ai, Miel!

MIELTXO.- (Ia negarrez.) Nahigabe izan dun, Malen, jo.

MALEN.- Ez hasi negarrez orain, mesedez.

KONTALARIA.- Hain zuzen ere, fardel beltzak gozokiak altxatu ditu eta usaindu. Orduan bai hasi dela leku guztietara urduri mugitzen. Ongi ezkutatu!

MANUEL.- Zerbait egin behar dinagu, Malen...

MALEN.- Zer?

MIELTXO.- (Negar malkoak garbitu dituela, azkar hitz egiten.) Hobedena, bedehala edazo egidea.

BESTE BIAK.- Zer?

MIELTXO.- Goazen denok bere konda!

MANUEL.- Erotu egin al haiz? Zer egin dezakegu animalia basati baten kontra?

MIELTXO.- (Kikilduz.) Beno...

MALEN.- Mielek, arrazoa dik. Usaindu gaituk eta berehala aurkituko dik gure ezkutalekua. Izutzen saiatuko gaituk, azken finean, hiru gaituk eta bera bakarra.

MIELTXO.- Hodi beda ezan nahi nian nik, Manuel.

MANUEL.- Eta nola egingo dugu?

MALEN.- Begira...

KONTALARIA.- Eta orain zer pasatzen da? Hirurak elkartuko dira eta xuxurlatuz ematen du zerbait adosten ari direla. Bitartean fardel beltza alde batetik bestera joango da zerbait topatu nahian. Supituki hiru lagunak ezkutalekutik aterako dira oihuka, arropaz estalita dutela aurpegia eta bakoitzak motxiletatik ateratako tramankulu bitxiren batekin eskuetan, fardel beltzari eraso egin nahian. Linterna? Mapa? Zapatila? Zer lortuko dute, bada, horrekin? Hara, fardela beltza lurrera erori da izututa.

FARDEL BELTZA.- Ez mesedez, ez egin ezer, ez mesedez.

MANUEL.- Entzun duzue? Animalia basatiak hitz egin du?

MIELTXO.- Animalia bazatiek hitz egiten al dute?

MALEN.- Ziur tranpa bat dela guri ziria sartzeko, uste diat sorgin maltzurra dela eta saiatzen ari dela gu engainatzen.

BULTO BELTZA.- Ez mesedez, gupida zaitetze, ez dut ezer egin.

MALEN.- Ikusten, arrazoia nian. Hitz gozoekin gu limurtu nahian zabilek.

MANUEL.- Uste dinat oker habilela, Malen.

MALEN.- Ala, hi ere sorgindu al hau?

MANUEL.- Ez, ba. Burugogorra haiz gero!

MALEN.- Burugogorra ni?

KONTALARIA.- Hauek eztabaidatzen ari diren bitartean, fardelari hurbildu zaio Mieltxo. Zein ausarta!

FARDELA BELTZA.- Ez, ez, ez, mesedez.

MIELTXO.- Hada, begida, hada.

MALEN.- Ze egiten duk Miel? Ze hada, ez duk maitagarria... Alde egin hortik!

MIELTXO.- (Barrezka.) Ez dun animalia bazatia, Malen.

MALEN.- Nik esaten nuena, sorgin maltzurra duk. Etor hadi hona!

MIELTXO.- Ezetz, ba! Ez dela sorgina ere!

MANUEL.- Zer duk orduan, ba?

MIELTXO.- (Barrezka.) Emakume zaharra!

FARDEL BELTZA.- (Lurretik altxatuz.) Aizu, ez naizela horren zaharra, e!

KONTALARIA.- Egia da! Mieltxok esan bezala edadeko emakumea da fardel beltza; kapa beltza du soinean eta entzuten zen soinua, kapak errautsaren kontra egiten zuen soinua zen. Emakumeak atsegina du itxura. Hiru lagunek aurpegietatik arropa kentzen dute eta tramankulu ezberdinak gordetzen.

MANUEL.- Barkatu, andrea uste genuen...

MALEN.- Beno, batez ere nik uste nuen...

MIELTXO.- Ozo budugogorra da...

MALEN.- E, aizak, denok beldur ginela!

MIRTA.- Ongi dago noizean behin burugogorra izatea, gauza asko lortzen dira horrela, baina horrek ezin dizu bizitzan dena baldintzatu.

MALEN.- (Burumakur.) Arrazoia duzu andrea.

MIRTA.- Ez da ezer gertatzen, gaztetan horrelakoa nintzen ni ere. Askotan pentsatu gabe egiten nituen gauzak. Ai, ia ahaztu zait aurkeztea (Eskua eskainiz.) Mirta naiz.

MALEN.- Urte askotarako, andrea. Ni Malen naiz eta barkatu gertatu berri dena.

MIRTA.- Ez da ezer. Eta zure lagunak izenak?

MANUEL.- Manuel naiz andrea, urte askotarako.

MIRTA.- Bai, berdin. Eta txokolatea jaten ari den gazte hura?

MANUEL eta MALEN.- Txokolatea?

MIELTXO.- (Txokolate zatitxoak ahotik botaz.) Jo, azeko polzikoan audkitu dut eta... (Lotsatuta.) Miel naiz, Mielzo lagunentzat.

MIRTA.- Eta zer egiten dute gazte jator hauek horren eskualde arriskutsuan?

MIELTXO.- Abentuda! (Malenek lasaitzeko keinua egingo dio.)

MIRTA.- (Irribarre tristeaz.) Abentuda, e? Eta zer nolako abentura bilatzen ari zarete?

MANUEL.- Euriaren bila goaz. Gure herritik duela urtebete ez dela agertu. Zeuk ikusi al duzu?

MIRTA.- Euria? Ba, hemen ez duzue aurkituko. Ez duzue ikusten nola dagoen guztia? Dena errauts bihurtuta, suak kiskalita, ez da ezer geratzen.

MALEN.- Oso leku itsusia, zera esan nahi dut... tristea eta iluna dela leku hau.

MIRTA.- Lasai, arrazoia duzu, oso leku itsusia da. Hau lehen baso eder bat zen, fruitu gozoak ematen zituzten zuhaitzek eta libre bizi ziren animaliak. Zoriontsu bizi zen eskualde honetako jendea. Orain ez da ezer geratzen.

MALEN.- Nola da posible? Izurritea hemendik pasa al zen?

MIRTA.- Izurritea? Berriz hitz hori? Aspaldi hona iritsi zen gizon talde bati entzun nien hori: izurritea zetorrela eta zuhaitzak moztu behar zituztela defendatzeko. Izurritea oso arriskutsua zela eta animaliak kanporatu behar zirela. Izurritetik babesteko basoko argigune batzuk erre behar zirela. Pixkanaka-pixkanaka dena suntsitu zuten arte, gero alde egin zuten izurritearen bila. Auskalo nora. Beste lekuren bat suntsitzera.

MANUEL.- Eta ez zen hemen inor bizi hori eragozteko?

MIRTA.- Zer egin behar genuen? Gizon horiek gehiago ziren, uniformeekin zetozen, arrazoia zutela ematen zuen. Hemen inguruan artzain eta nekazari ezjakinak besterik ez ginen bizi, ezin izan genuen ezer egin.

MANUEL.- Eta orain?

MIRTA.- Jende guztiak alde egin zuen, hemen jada ezin zen lurrik landatu, ezta animaliarik zaindu ere. Ni... ni hemen geratu nintzen, ez dut inora joaterik, nire semea gizon horiekin joan zen izurritea suntsitzera eta ez da bueltatu. Zaharra naiz, egia da, zuen lagunak esan duen bezala. Zaharra inora joateko.

MIELTXO.- Etorri gurekin eudiaden bila!

MALEN.- Miel...

MIELTXO.- Jo, ze?

MANUEL.- (Maleni.) Ez, Mieltxok arrazoia din. Andrea gurekin etor daiteken, edozein laguntza beti ongi etorria izango dun.

KONTALARIA.- Jo, berriro bilduko dira hiru lagunak, eta eztabaida sutsu baten marmarrak entzun ditzakegu. Zein jenio bizia duen Malenek, zein ideia bitxiak dituen Mieltxok, zein tipo xelebrea den Manuel! Baina hirukote bikaina osatzen dute, hala ere. Mirtak bitartean irribarre egingo du, zer gertatzen ari den argi edukiko ez balu bezala. Azkenean hiru lagunak akordio batera iritsi direla dirudi.

MALEN.- Erabaki dugu...

MANUEL.-...nahi dugula...

MIELTXO.- ...gurekin edortzea...

MIRTA.- Zer? Zuekin erortzea? Nora baina "erori"?

MIELTXO.- Ez, edortzea ez. Edortzea.

KONTALARIA.- Mirtak ez du ulertu, normala, horregatik jarri du aurpegi hori.

MALEN.- Mielek esan du... nahi dugula gurekin euriaren bila etortzea.

MIELTXO.- Ba, hodi ezan dut, ez?

KONTALARIA.- Kar, kar,kar. Hasi da barrezka Mirta, irribarre arin eta alaiaz!

MIELTXO.- Hoden dibertigadia al da ezan dudana?

MIRTA.- Oso jatorrak zarete gazteok, baina ez dut zuekin joan nahi.

MIELTXO.- A, ez? Baina lehen ezan duzu...

MIRTA.- Bai, baina hau da nire lekua. Errautsak eta guzti. (Errautsen artean batean landare baten kimutxoa aterako da.) Begira, begira...

DENAK.- O!

MIRTA.- Oraindik esperantza dago, agian egunen batean hau berriz baso eder bat izango da. Zoazte orain eta euria aurkitzen baduzue bidali hona ere, beharrezkoa izango dugu eta.

MALEN.- Horrela egingo dugu, Mirta.

KONTALARIA.- Denek elkar agurtzen dute eta gure lagunak badoaz.

MIRTA.- (Bere buruari.) Eta nire semea ikusten baduzue, esaiozue bere ama zain duela hemen.

KONTALARIA.- Aintzira batean gaude orain, baina aintzira... aintzira beltza da, dena petrolioz zikindutako aintzira. Bai zikina, hau nazka. Begira, Mieltxo korrika dator, ez da oso ohikoa Mielek korrika egitea, baina beti egiten du zerbait lortu nahi duenean, eta azkar gainera.

MIELTXO.- (Oihuka.) Uda! Begida! Azkenean! (Motxilatik kantinplora aterako du eta aintzirako urarekin betetzera joango da.) Puf!

KONTALARIA.- Zer egiten ari da? Ura usainduko du eta probatzera doanean...

MANUEL.- (Mieltxo zertan ari den ikusita.) Ez!

MIELTXO.- Zed?

MANUEL.- Ur hori kutsatuta zagok. Ez duk ikusten? Ez duk usaintzen? Ezin duk edan.

MIELTXO.- Ez nauk tontoa, kontudatu nauk, nazkagadia duk. Puf!

KONTALARIA.- Manueli bat-batean haizea faltako zaio, bien artean helduko dute asma atakea baitu. Paperezko poltsa batean arnas egin ondoren hobeto sentituko da, baina kristoren sustoa eman die besteei.

MALEN.- Ongi al hago?

MANUEL.- (Maleni.) Baietz uste dinat, Malen. Usain nazkagarri honekin ezin ninan apenas arnasarik egin. (Biei.) Eskerrik asko.

MALEN.- Ez da ezer.

MIELTXO.- Hau sustoa eman diguana, Manuel.

KONTALARIA.- Miel eta Manuel txantxetan hasiko dira borrokan, badirudi hobe sentitzen dela Manuel. Malenek bitartean ingurua begiratuko du, harridura eta nazka aurpegiak.

MALEN.- Baina, zer da hau? Ur gardeneko aintzira bat izango zuan garai batean eta orain dena petrolioz gainezka zagok.

MANUEL.- (Jolasteari utziz.) Ziur izurritea hemendik pasa dela.

MICHAEL.- Bai eta ez!

HIRURAK.- E? Nor zara zu?

KONTALARIA.- Hara! Aintziraren ertzetik Michael agertu da. Hau ezustekoa hartu dutena denek. Michael ikertzaile ingelesa da, bere bata zuri ingelesarekin eta bere mikroskopio ingelesarekin. Munduko ikertzaileen artean ospe handienetakoa duen ikertzaile ingelesa da. Baina berak aurkeztuko du bere burua. A, Arkansasen jaio zen. Edo hori ez dago Ingalaterran?

MICHAEL.- O, good heavens! Ez nauzue ezagutzen? (Harro.) I'm Michael Mcqueen, ikertzailea naiz. Munduko ikertzaileen artean garrantzitsuenetakoa.

MIELTXO.- (Kuriositatez.) Ez al zada gadanzizuenena? Lastima.

MICHAEL.- (Marmarti bere buruari hitz egingo balio bezala.) Jende guztiak esaten du ez naizela garrantzitsuena. Honaino ere iritsi da Mcdonalds ikerlariaren fama. Shit.

MALEN.- (Egoeraz ohartuta.) Barkatu, jauna, ez egin kasurik gure lagunari. Nahiko tontoa da.

MIELTXO.- E!

MICHAEL.- Ez da ezer gertatzen. Agerian da ume moko ezjakina besterik ez dela.

MIELTXO.- E!

MALEN.- Ixo! Gero hitz egingo diagu! (Miel bazter batera joango da haserre.)
Jauna, lehen esan dugu ur gardeneko aintzira bat izango zela garai batean.

MANUEL.- Eta ziur izurritea hemendik pasa dela.

MALEN.- Eta zuk bai eta ez esan duzu?

MICHAEL.- Egia da: "Bai eta ez" esan dut. Zientifiko bikaina naiz, ezta?

MALEN.- Ze esan nahi zenuen horrekin?

MICHAEL.- Oso erraza da. Bai, ur gardeneko aintzira bat izan zen hau garai batean. Eta, ez, hemendik ez da izurriterik pasa.

MANUEL.- Eta orduan?

MIELTXO.- (Bere bazterretik hizketan hasiko da.) Ziur gizon talde bat hemendik paza dela eta bede bidean aintzira zikindu dutela.

MALEN.- Mieltxo!

MICHAEL.- Oh, amazing! Zuen laguna ez da horren tontoa. Gizonezkoak ziren, bai, soldaduak, hain zuzen ere. Izurritearen bila joaten ziren suntsitzeko, baina bidean dena deuseztatzen ari dira.

BESTEAK.- O!

MICHAEL.- Ni hemen ari naiz, ea hau garbitzeko moduren bat dagoen. Zaila izango da, hala ere!

KONTALARIA.- O, malkotxo bat isuri du, bat bakarrik, tipoa ingelesa da eta! Baina guztiak hunkitzeko moduko malko ingelesa.

MICHAEL.- Baina aintzira maite dut... lana utzi dut hau salbatzeko... (Berriz serio jarritz.) ... Eta zuek? Nora zoazte zuek?

MALEN.- Euriaren bila goaz, duela urtebete alde egin zuela gure herritik. Ez zenuen ikusiko?

MICHAEL.- Oh, my God! Interesgarria benetan! Baina, hemen ere aspaldi ez duela euririk egin. Hori ikertzen hasiko naiz, aintzira garbitzeko beharrezkoa genuke euri pixka bat. Lan handia benetan!

MANUEL.- Joan beharra dugu lagunok.

MALEN.- Egia da.

KONTALARIA.- Aintziratik arraintxo bat salto egiten ikus daiteke. Salto bat! Bi salto! Michael oso modu ingelesean poztu egin da.

MICHAEL.- Wow, ikusi duzue hori? Badago esperantzarik. Egunen batean aintzira hau berriz garbi-garbia egongo da. (Bere buruari serio.) Lan handia egiteko oraindik! Come on, come on!

MALEN.- Ziur naiz zure laguntzari esker, berehala izango dela.

KONTALARIA.- Malenek musu ematen dio eta agurtu ondoren Manuelekin badoa. Ja, lotsagorritu da Michael.

MIELTXO.- (Michaeli.) Ez egin kazurik, jendeari. Igual Mcdonalds hori zu baino ikerladi gadanzizuagoa izango da. Baina zu perzona hobea zara, ziur naiz.

MALENEN AHOTSA.- Mieltxo!

MIELTXO.- Joan beharra daukat. Zorte ona aintzirarekin.

MALENEN AHOTSA.- MIEL!

KONTALARIA.- Mieltxok ere musu emango dio masailean ikerlariari eta korrika alde egingo du. Hau oraindik gorriago jarriko da.

MICHAEL.- (Oihu ingelesa botaz.) Zorte ona euriarekin! (Berekiko.) Eta orain lanera.

IV

KONTALARIA.- Txatarra zabortegi batean gaude, mendi izugarriak sortzen dituzte herdoildutako txapek eta beste hainbat materialek. Txatarren mendiak. Harat eta honat garai batean izandako trasteak daude, jada ezer ez direnak. Gure hiru lagunak agertuko dira elkarrizketa bizian daudela, animatuagoak ikusten zaie. Zer dela eta?

MALEN.- (Botila batetik edanez.) Eskerrak janari denda bat aurkitu dugun bidean.

MIELTXO.- (Txorizo bokata janez.) Ezkedak, bai! (Janaria ahotik botatzen duela.) Aizu, Malen, ez digun ezan odaindik zedgadak dadaman zoineko izuzi hori.

MALEN.- (Ulertu ez duela.) Zer?

MIELTXO.- ZOINEKOA!

MALEN.- A, hau! Ez dik garrantzirik.

MANUEL.- Nola ez din izango, ba? Gorroto ditun soinekoak, hala ere, soineko hori aspaldi ez dunala kendu. Arrazoiren bat egongo din horretarako.

MALEN.- Ezetz ba! Gainera, kontatzen saiatzen naizen bakoitzean zeozer gertatzen duk eta ez didazue kasurik egiten.

MANUEL.- Oraingoan ez dun hori gertatuko.

MALEN.- Ezetz.

MANUEL.- Ez izan burugogorra, Malen.

MIELTXO.- Hodi, ez izan budugogoda.

MIELTXO eta MANUEL.- Mesedez...

MALEN.- Ados, konbentzitu nauzue. Egia duk, soinekoak gorroto ditiat nik eta ez ditiat inoiz janzten. Horregatik soineko hau janzteko arrazoi bakarra...

KONTALARIA.- Fiu! Une horretan, txatarra pila eskuetan duen haur bat ziztu bizian pasako da haien aurretik, berriz desagertzeko ondoren, guztiak harri eta zur utziz.

MALEN.- Ze izan da hori?

MANUEL.- (Maleni.) Nik esango niken haur bat zela.

MIELTXO.- Bai, haur bat.

KONTALARIA.- Hor doa berriz haurra ziztu bizian haien aurretik pasatuz, ondoren desagertzeko. Oraingoan eskuak hutsik zeramatzan eta hobe ikusi ahal izan dugu nolakoa den. Mutiko beltzarana da eta nahiko zikina dago, bere arropa zarpailek adabakiak dituzte leku guztietatik. Oinutsik doa, oso arriskutsua txatarra artean ibiltzeko, baina bera ohituta dagoela dirudi. A, bere izena Milú omen da.

MALEN.- Ze izan da hori?

MANUEL.- (Maleni.) Nik ziurtatuko niken haur bat zela.

MIELTXO.- Bai, hauda, bai.

KONTALARIA.- Hirugarren aldiz haurra agertu da txatarraz beterik dituela eskuak, baina oraingoan Malenek geldiaraziko du.

MALEN.- GELDI!

MILÚ.- (Sustoaz txatarra guztia lurrera erortzen zaiola.) A! Zertan habil marizikin? Orain dena jaso beharko dinat eta oso berandu dun. Zer ordu da? (Guztiek sorbaldak jasoko dituzte, ez dakitela adierazteko.) Oso berandu, kendu nire bide

paretik, hontza-aurpegi hori apurtzea ez badun nahi, behintzat!. (Lurrean geratzen zaizkion txatarra zatiak jasotzen jarraituko du.)

MALEN.- (Atsegina izan nahian, eskua luzatuz.) Malen nauk.

MIELTXO.- Eda ni Mieltxo!

MANUEL.- Manuel.

MILÚ.- (Txatarra lurrean utzi gabe gure lagunak begiratuko ditu mesfidati.) Eta? Ze nahi duzue, babo koadrila? (Maleni.) Txatarra hau nirea dun, aitu? (Besteei.) Nik neuk jaso diat, beraz, nirea duk. (Guztiei.) Zoazte zeuena bilatzera, aitu?

KONTALARIA.- Bere lanean jarraituko du Milúk. Gure lagunek ingurura begiratuko dute, txatarra mendiak eta mendiak bakarrik ikusiko dituzte.

MALEN.- (Milúri.) Dena txatarraz gainezka zagok, txatarra leku guztietatik.

MILÚ.- (Berriz ere begiratzen dituela.) Eta?

MANUEL.- Ba, txatarra nahi izango bagenu, edonondik har dezakegula.

MILÚ.- Ja! Hori uste duzue zuek! (Manueli.) Txatarra guztiak ez dik balio bera, ez duk gauza bera metraileta baten txatarra edo tanke batena. (Maleni.) Ez dun gauza bera kasko baten txatarra edota urpekari batena. Gainera, bakoitzak bere eremua din. (Manueli.) Ezin duk edozein lekutako txatarra hartu, aitu? (Bere buruari lanean jarraituz.) Ze gauzak entzun behar diren!

MIELTXO.- (Oraindik bokata zatiak ahoan dituela.) Ez gaituk txatada bila etodi, kontxo.

MILÚ.- (Mesfidati begiratzen du ezer ulertu ez duela.) Ze diok ipurdigizen?

MIELTXO.- E!

MANUEL.- Kasurik ez...

MILÚ.- (Txorizo bokata ikusten duela.) Aizak, potxolo, ez duk zatitxo bat izango?

MIELTXO.- Bokata? Bai, bezte bat diat poltsikoan. (Bokata poltsikotik atera behar duenean, Malenek geldiaraziko du.) Ai, lazai Malen, duen mingain horrekin ez zionat ezer oparituko.

MILÚ.- Eskulaburra.

MALEN.- Bakarrik emango dik... esandako hitz itsusiengatik barkamena eskatzen baduk eta...

MILÚ.- Bai, zera! (Gosea denez, gogoz kontra.) Ondo da, barkatu... eta ze gehio?

MALEN.- Gurekin tarte batean hitz egiten baduk.

MILÚ.- (Maleni.) Ez dinat astirik, oso berandu dun. Hau guztia eraman behar dinat.

MALEN.- Ba orduan ez duk bokatarik izango.

MILÚ.- (Mesfidati.) Ados. Baina txatarra hau nirea dun. (Txatarra lurrean poliki utziko du.)

MIELTXO.- Jo, Malen, paza egin haiz.

MANUEL.- Bai, Malen.

MALEN.- Ni pasa? Baina, entzun duzue bera? (Purrustaka.) Arrazoia duzue. (Mieli bokata hartuz eta Milúri eskainiz.) Mutiko tori bokata eta barkatu esandakoa. (Mutikoak bokata hartuko du eta inoiz jan izan ez balu bezala jaten hasiko da.) Gosea hintzen, bai.

MIELTXO.- (Barrezka.) Ni baino gehiago!

KONTALARIA.- Mutikoak berehala bukatu du bokata eta berriz txatarra jasotzen hasiko da.

MALEN.- E, aizak, tratu bat egin diagu.

MILÚ.- Eta?

MALEN.- Nola, eta? Gure izenak esan dizkiagu. Zein da hirea? (Ez duela erantzuten ikusita.) Ez diagu hire txatarra nahi, ez gaituk txatarra bila etorri.

MILÚ.- Ez zarete txatarraren poliziak izango?

BESTEAK.- Txatarraren poliziak?

MALEN.- Polizia itxura al dugu?

KONTALARIA.- Milúk gure lagunak goitik behera begiratuko ditu eta algaraka hasiko da.

MANUEL.- Argi zagok ez dugula txatarraren poliziaren antzik, ezta?

MILÚ.- (Pixkanaka barre egiteari uzten diola. Manueli.) Ez. Milú nauk eta hemen lan egiten diat txatarra biltzen. Familia osoa mantentzen diagu nire anaia txikia eta biok.

MANUEL.- Eta txatarraren polizia zer da?

MILÚ.- Izurritea sunsitzera zihoazen gizon batzuek utzi zuten txatarra gure lurretan abandonatuak. Guk saldu nahi diagu, hemen botata zagok bestela. Baina txatarraren poliziak atxilotzen gaitik eta kartzelara eramán. Horregatik diat horrenbeste prisa, ez harrapatzeko. (Berriro mesfidati guztiei.) Eta zuek? Zer egiten duzue hemen?

MIELTXO.- Eudiaden bila goaz!

MILÚ.- Ez diot zuen lagunari ezer ulertzen.

MALEN.- Ez naik harritzen.

MANUEL.- Geure herrian duela urtebete ez duela euririk egin. Euriaren bila goazak.

MALEN.- Baina bakarrik miseria aurkitzen diagu leku guztietatik.

MILÚ.- Alferrik zabiltzate, hemen ez dago euririk! Hobe duzue etxera bueltatzea. (Txatarra guztia jasoz.) Orain banoa. Oso berandu da. Agur. (Atera aurretik begiratzen die.) Beste bokatarik al duzue? (Mieltxori.) Nire anaiak ez dik ezer jan.

MIELTXO.- (Janariz betetako bere motxila Milúren sorbaldan jarriz.) Todi.

MILÚ.- (Mieltxori.) Ez diat limosnarik onartzen. Ez diat nahi.

MIELTXO.- Ez duk limosna. Pentsa lagun batzuen oparia dela.

MILÚ.- (Segundo batez pentsakor.) Eskerrik asko. Inork ez ziguk sekula ezer oparitu. Eta barkatu, lehen esandako guztiak. Ezin haiz inortaz fio hemen.

KONTALARIA.- Fiu! Milúk sartu bezala alde egin du, azkar batean, guztiak pentsakor utziz.

MANUEL.- Malen, mutiko horrek arrazoia din. Denbora gehiegi zaramanagu etxetik kanpo, hire ama arduratzen hasiko zunan eta errua Merriman andreari botako zion. Ez dun hori nahi, ezta?

MALEN.- Ez, ez. Baina... etxera bueltatzea euririk gabe, porrot egin dugula onartzea izango lukek. Gainera euria behar diagu herrian.

MIELTXO.- Podot ez, Malen, saiatu gaitun, ez dinagu audkitu, baina saiatu gaitun. Hori dun gadanzizuen. Uzte dinat azkenean euria topatzea lorduko dugula, nola edo hala. Ikuzten dun leku askotan behar dutela euria, ez guk bakadik.

MANUEL.- (Maleni.) Ez niken oso ozen esan nahi, baina gure Mieltxo gero eta helduagoa bihurtzen ari dela uste dinat.

MALEN.- Egia duk.

MIELTXO.- E, polzikoan zokolatina bat gerazzen zait! Nork nahi du nirekin partekatu?

MANUEL.- Edo agian ez.

MALEN.- Manuel, Mieltxo... etxera bueltatuko gaituk eta jende guztiari ikusi dugun guztia kontatuko zieagu. Ziur guztion artean euriaren bila hasten bagaituk, azkenean topatuko dugula. Zerbaitetarako balio beharko dik bidaiak honek guztiak.

MANUEL.- Ziur al hago, Malen?

MALEN.- Bai, ziur nauk.

MANUEL.- Goazen ba!

MIELTXO.- Goazen!

KONTALARIA.- Beno, hemen gaude berriro, heldu gara azkenean. Hasieran ikusi dugun etxe zahar bereko atarian gaude, lagunak neka-neka eginda daude. Etsipen apur bat ere ikus daiteke haien aurpegietan.

MALEN.- Heldu gaituk.

MANUEL.- Bai.

MIELTXO.- Bai.

MIKAELAREN AHOTSA.- Madeleine! Madeleine! Ai, oi, ai!

MALEN.- Ai, ai, ai.

MIELTXO.- Oi, oi, oi.

MANUEL.- Ui, ui, ui. Mikaela, hau ahots gozoa.

KONTALARIA.- Nola suertatzen diren gauzak! Etxeko atetik Merriman andrea agertuko da. Estropezu egingo du bidean eta eskuetan zeraman tarta buru gainean izango du tente.

MALEN.- (Barrezka.) Txano polita, Merriman andrea.

MIKAELA.- Madeleine! Zure amak kristoren disgustua du! Ohetik ezin jaiki dabil!
Eta nik...

KONTALARIA.- Ai, ene, Maleni hurbiltzen zaio eta zaplaztekoa eman behar diola ematen du... baina ez, besarkada indartsua eman dio...

MIKAELA.- Eta neuk ere kristoren disgustua nuen! Ez berriz horrelakorik errepikatu, badakizu andereño batek... (Maialenen aurpegia ikusita.) Ez, ez dut berriz esango, Malentxo maitea! Jakin daiteke non sartu zareten?

MIELTXO.- Oso istorio luzea da.

MALEN.- Mieltxo!

MIELTXO.- Ze egin dut oraingoan?

MALEN.- Normal hitz egiten ari zarela.

MIELTXO.- Egia!

MIKAELA.- Beno, Malentxo. Zure ama abisatzera noa, ziur osatuko dela berriarekin.

MALEN.- Zurekin joango naiz.

MIKAELA.- Ez, sorpresa bat dut zuretzat.

MALEN.- Sorpresa?

MIKAELA.- Bai, gustatuko zaizun sorpresa. Hemen gera zaitetz itxaroten, nik sorpresa hori ospatzeko tarta prestatu dut, baina... (Burua seinalatuz.)

MANUEL.- (Ahots gozoaz eta barre tontoaz.) Tarta gozo-gozoak egiten dakizkit, nahi baduzu... bion artean egingo dugu... Mikaelatxo.

MIKAELA.- (Ahots gozoaz eta barre tontoaz.) O, Manueltxo, jakina! Eta zure gabardina erakutsi behar dizut, polit polita geratu da...

MANUEL.- Ziur zu bezain polita ez dela geratu. O!

KONTALARIA.- Biak elkarri eskutik helduta etxera sartuko dira, zein polita!

MIELTXO.- TARTA, TARTA, TARTA! Ze, Malen ez hator?

MALEN.- Hemen geratu behar diat, sorpresa bat omen diat.

MIELTXO.- Ba, orain arte. TARTA, TARTA, TARTA!

MALEN.- Miel, primeran ulertzen zaik orain!

MIELTXO.- Egia dun. ONGI!

MALEN.- Hala ere, niri hire lehengo ahotsa gustatzen zitzaidaan.

MIELTXO.- Nahi badun berriz errepikatu egin zezakenat. Nahi badun bediz edepikadu egin zezakenad.

MALEN.- (Irribarretsu.) Ez duk beharrezkoa.

MIELTXO.- Orain arte, ba! TARTA, TARTA, TARTA!

KONTALARIA.- Mieltxo etxera sartuko da alai. Baina, Malen ez, hasierako eskailleratan eseriko da itxarotera, lehen utzitako palmondoaren hostoa hartuz eta astinduz haize pixka bat lortzeko asmoz. Sargori dago, bai! Hara! Atzeko atetik itzal bat ikusiko dugu, hasieran ez dago oso argi zer den, baina begiratu ongi, pixkanaka-pixkanaka soldadu baten itxura hartuko diogu. Soldadu hori makuluekin dabil, izan ere... ai ene, hanka bat falta zaio! Malen makuluen hotsa egurraren kontra entzungo du eta burua jiratu, soldadua ikusi duenean, salto batez hurbilduko zaio.

MALEN.- (Oihuka.) Aita! (Besarkatuko du.) Baina zer duzu? Zer dira makulu horiek?

AITA.- Malentxo, hemendik aurrera makiltxo hauekin ibiliko naiz.

MALEN.- (Harrituta.) Hanka bat falta zaizu!

AITA.- (Umirez.) Benetan? (Barrezka.) Konturatu naizela uste dut.

MALEN.- Izurritea izan zen, ezta?

AITA.- (Hasperen eginez.) Ez, maitea. Ez zegoen izurriterik, denok engainatu gintuzten. Gerra zen eta kito. Gizon batzuk beste batzuen kontra, baina denak galtzaile atera ginen. Horrelakoak dira gerrak.

MALEN.- Hanka galdu duzu...

AITA.- Beste batzuk ez dira etxera bueltatuko, maitea.

KONTALARIA.- Biak isilik geratzen dira.

AITA.- Beno, eta zuek, nora joan zarete zu eta zure lagunok? Ama arduratuta zegoen.

MALEN.- Oso istorio luzea da, euriaren bila joan gara... baina ez dugu topatu.

AITA.- Euriaren bila! Ze gauzak dituzu Malentxo. (Musu ematen dio.) Eta soineko hori? Zergatik daramazu soineko hori? Beti gorrotatu dituzu soinekoak eta...

MALEN.- Bai, baina... ez zara gogoratzen? Zuk oparitu zenidan joan aurretik, duela urtebete...

AITA.- Egia da maitea, a ze burutazioak nireak, baina nahiko zaharra eta urratua dago...

MALEN.- Ez dut apenas erantzi alde egin zenuenetik, garbitzeko bakarrik... direnak eta ez direnak entzun behar izan dizkiot Merriman andreari. (Negar malkoa agertzen da bere begietan.) Baina zure azken oparia zenez...

AITA.- (Besarkatzen du.) Ai, maitea. Bueno, bueno, bueno. Oraintxe bertan dutxa hartu, zure praka eta kamiseta polit horietako bat jantziko dituzu, eta soineko

itsusi hau zakarrontzira botako dugu. Ados? (Malenek buruaz baietz esango du.)
Eta amarekin hitz egitera joango gara, disgustuak besterik ez dizkiogu ematen
eta. Eta gero...

MALEN.- Eta gero, zer?

AITA.- TARTA, TARTA, TARTA!

MALEN.- Bai. TARTA, TARTA, TARTA!

KONTALARIA.- O, zein polita. Elkarri besarkatu diote eta etxera sartzera doaz, une
horretan zerua pixkanaka-pixkanaka beltz jartzen hasi da. Ilun benetan!

MALEN.- Aita!

AITA.- Ze maitea?

MALEN.- Euria da aita! Euria! (Malen euripean jolasten hasiko da, bere ile guztia
eta soinekoa bustiz.) Euria, aita, euria aurkitu dugu! Esperantza dago, aita!

AITA.- Esperantza, maitea?

MALEN.- Mundu hobe lortuko dugun esperantza.

AITA.- Bai, maitea, badago. Goazen barrura, besteok zain ditugu-eta. (Malenek
aita laguntzen du etxera sartzen.) Eskerrik asko, maitea.

MALEN.- Aita...

AITA.- Zerr maitea?

MALEN.- Makuluentzat euritakoa fabrikatuko dizut.

AITA.- Ai, Malentxo, zein gauzak dituzun.

KONTALARIA.- Begira, ate barruan desagertu dira. Eta ahots hori? Ekaitzarekin batera Malenen ahotsa entzungo dugu hasieran bezala.

MALEN.- Ekaitzarekin batera aita etxera bueltatu zen. Ekaitzarekin batera ama sendatu eta ohetik jaiki zen. Ekaitzarekin batera esperantza existitzen dela ikasi nuen, mundu berri eta eder baten esperantza.

KONTALARIA.- Eta hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila, herri guztietako plazetan.